

2014-05-27an EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO
BILKURA

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
27-05-2014

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregi
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Rosario Arkauz Arkauz
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamalauko maiatzaren 27an, arratsaldeko bostak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Cantero eta Urrutia jaunak eta Landa andrea.

En Eskoriatza, siendo las diecisiete horas y treinta minutos del día 27 de mayo de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Cantero y Urrutia y la Sra. Landa.

1.- ESKOLA AGENDA 21: BIODIBERTSITATEA. 2013/2014 IKASTURTEKO PROPOSAMENAK.

Alkateak ongi etorria egin die bertaratutako guztiei, bereziki, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleei.

Hitza eman ondoren, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleen ordezkariek 2013/2014 ikasturte honetan Eskola Agenda 21aren barruan biodibertsitateari buruz Udalbatzarrari egiten dioten proposamena aurkeztu diote Udalbatzarri.

Proposamen hori akta honen eranskin gisa doa.

Aurkezpenaren ondoren, Alkateak eskertu egin du egindako lana, eta dei egin die bertan dauden ikasle guztiei, euren senideei eta lagunei Udalari laguntzeko herria eta lorategiak txukun eta garbi izaten, eta hondakinik ez botatzeko mendira doazenean. Egindako proposamenak banan-banan aztertzeko eta horiei buruzko erabakiak batzorde informatzailetan hartzeko konpromisoa hartu du. Esan du ikastetxe bakoitzari jakinaraziko zaiola batzordeek hartutako erabakiak, eta baita ere, eskaera gehienei erantzun ahal izango diotela, betetzeko errazak direlako.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 17:40 ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- AGENDA ESCOLAR 21: LA BIODIVERSIDAD. PROPUESTAS DEL CURSO ESCOLAR 2013/2014.

El Alcalde da la bienvenida a todos los presentes, en especial a los alumnos/as de los centros escolares de Eskoriatza.

Concedida la palabra, representantes de los alumnos leen al Pleno la propuesta que en este curso escolar 2013/2014 hacen a la corporación en el marco del programa Agenda Escolar 21 y que versa sobre la Biodiversidad.

Dicha propuesta se une como Anexo a la presente acta.

Tras la presentación, el Alcalde agradece la labor realizada y emplaza a todos los alumnos presentes, a sus familiares y a sus amigos a que colaboren con el ayuntamiento con actuaciones como la de cuidar la limpieza del pueblo, la de los jardines y no arrojando residuos cada vez que van al monte. Adquiere el compromiso de analizar una por una cada una de las propuestas y resolver sobre las mismas en la Comisión Informativa. Informa que se notificará a cada centro escolar el acuerdo adoptado por la comisión, así como que la mayoría de las peticiones podrán ser atendidas porque son fáciles de cumplir.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:40 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

ERANSKINA-ANEXO

Arratsalde on denoi:

Azken urteetan bezala, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, Eskola Agenda 21 programaren bidez, gure herriko ingurumenaren egoera aztertzen aritu gara.

Aurten BIODIBERTSITATEAREN hainbat aspektu landu ondoren, udal honi zenbait proposamen egitera gatoz.

Hona hemen gure lanaren ondorioak:

Buenas tardes:

Como todos los años, el alumnado de los centros escolares de Eskoriatza, dentro de Agenda 21, hemos analizado la situación del medio ambiente en nuestro pueblo.

Después de haber trabajado este año distintos aspectos de la BIODIVERSIDAD, venimos a hacer unas cuantas propuestas a este Ayuntamiento.

He aquí los resultados de nuestro trabajo:

Kaixo,

Gu lehenengo zikloko ikasleak gara, eta Museoan zomorroak eta materiaren zikloa landu genituen. Ekintza desberdinak egin genituen: konpostagailuetara joan, konposta jaso eta zomorroak bilatu eta identifikatu.

Gustura aritu ginan, baina, gauza batzuetaz ere ohartu ginan. Hori dela-eta, Udal honi eskaera hauek egin nahi dizkiogu:

- **Lorategietan erabiltzen diren produktuak naturalak izatea.**
- **Udaletxeak dituen baratzetan nolabait behartu produktu naturalak erabiltzera.**
- **Baratzak dituzten pertsonei produktu naturalak erabiltzeko aholkatu.**

Mila esker zuen arretagatik.

Hola,

Somos alumnos del primer ciclo y en el museo hemos trabajado el ciclo de la materia y los insectos y demás bichos que participan en ella. Para ello fuimos a las composteras, recogimos una muestra y buscamos los animales que había y los identificamos.

Anduvimos a gusto, pero también nos pudimos dar cuenta de ciertas cosas. Por ello, queremos solicitar al Ayuntamiento lo siguiente:

- Que los productos utilizados en los jardines sean naturales.
- Obligar, de alguna manera, a utilizar productos naturales en las huertas del ayuntamiento.
- Aconsejar utilizar productos naturales a la gente que tiene huertas .

Muchas gracias por vuestra atención.

Representantes de 1º y 2º curso.

Arratsalde on guztioi:

Eskoriatzako Ikastetxeetako 3. eta 4. mailako ikasleen ordezkariak gara. Guk, inguruko landaretza eta haziak aztertu genituen, eta horretarako, inguruko lorategi bat, baratze bat eta parke bat bisitatu genituen.

Ikusitakoak ikusita, Udalari honako konpromisoak eskatzea erabaki dugu:

- **San Pedroko auzoko parkea konpontzea eta bertako zuhaitz eta landareak landatzea bertan.**

Gure eskaera kontuan izango duzuelakoan, eskerrik asko.

3. eta 4. mailako ordezkariak.

Buenas tardes:

Somos los y las representantes de 3^{er} y 4^º curso de los colegios de Eskoriatza. Hemos trabajado la vegetación y las semillas de los alrededores (un jardín, una huerta y un parque).

Visto lo cual, solicitamos al Ayuntamiento que tome las siguientes medidas:

- Arreglar el parque de San Pedro y plantar árboles y plantas autóctonas.

Esperando que toméis en consideración nuestras propuestas, muchas gracias.

Representantes de 3^{er} y 4^º curso.

Kaixo denoi,

Guk, 5. eta 6. mailako ikasleok, Deba erreka aztertu genuen. Horretarako, bi taldetan banatuta, errekaren bi puntu aztertu genituen.

Hori egin eta gero, Eskoriatzako Udalari zera eskatzen diogu:

- **Ibai ertzetan zakarrontziak jartzea.**
- **erreka sarriagotan garbitzea.**
- **Landaretza gehiago landatzea ibai ertzetan.**
- **Errekako barandak berriztatzea.**
- **Noizean behin errekan bizi diren animaliak birpopulatzea.**
- **Kartel handi bat jartzea “ERREKA ZAINDU”**
- **Garbitokiaren ondoan dagoen errekatxoa ere garbitzea.**

Eskaera horrek guztiak kontuan hartuko dituzuelakoan, aurrez mila esker.

5. eta 6. mailako ikasleak

Hola,

El alumnado de 5º y 6º curso analizamos el río Deba. Para ello nos dividimos en dos grupos y analizamos dos puntos.

Una vez analizado el tema, solicitamos al Ayuntamiento de Eskoriatza que tome las siguientes medidas:

- Poner más papeleras en las orillas del río.
- Limpiar el río más a menudo.
- Plantar más vegetación a orillas del río.
- Renovar las barandillas del río.
- Repoblar el río con animales.
- Poner un gran cartel “cuidemos el río”
- Limpiar también el riachuelo del lavadero.

Esperando que toméis en consideración todas las peticiones, muchas gracias por anticipado.

Alumnos de 5º y 6º curso.

Arratsalde on,

DBH 1. zikloko ikasleok gure inguruko ekosistemek zein zerbitzu eskaintzen diguten aztertu dugu. Horretarako, herri inguruko hainbat ekosistemei begirada bat eman genien eta ondorio honetara heldu gara: herriak beste ekosistema guztien beharra duela aurrera egiteko, ez baitu aski bere buruarekin.

Orduan ikusi genuena ikusita, ondorengoa eskatzen diogu Udalari:

- **Sentsibilizazio kanpainak egitea.**
- **Inguruko ekosistemak zaintzeko kanpainak bultzatzea.**

DBH 1. zikloko ikasleak

Buenas tardes,

Somos alumnos de 1º de ESO y este año hemos analizado los servicios que nos ofrecen los distintos ecosistemas de nuestro alrededor. La conclusión a la que llegamos fue que el pueblo necesita de otros ecosistemas para salir adelante ya que no es autónomo.

Después de todo esto, proponemos al Ayuntamiento lo siguiente:

- Realizar campañas de sensibilización.
- Hacer campañas para proteger los ecosistemas de alrededor.

Alumnos de 1º de ESO

Eta bukatzeko DBH 2. ziklokoena.

Kaixo,

DBH 2. zikloko ikasleak gara eta guk ere biodibertsitatea landu dugu aurten. Biodibertsitatearentzat hain beharrezkoa den airearen kalitatea aztertu dugu LIKENEN bidez. Hau da, PR Gi 99 ibilbidearen kutsadura mapa egin genuen. Ondorioz, herritik aldendu ahala kutsadura maila ere asko jaisten dela ikusi genuen.

Ikusitakoaren arabera, ondorengoa eskatzen diogu udalari:

- **Bide gorri sarea haunditzea.**
- **Garraio publikoa bultzatzea eta posible izanez gero, gure eskoletatik gertu autobus geltokiak izatea.**

Mila esker

DBH 2. zikloko ikasleak

Kaixo,

Somos de 2º curso de ESO y también nosotros hemos trabajado la BIODIVERSIDAD. Hemos trabajado la calidad del aire que tan necesaria es para la biodiversidad. Para ello, y basándonos en los líquenes del PR Gi 99, hemos hecho un mapa de calidad del aire, y hemos visto que según nos alejamos del pueblo se reduce mucho el nivel de contaminación.

Solicitamos al Ayuntamiento lo siguiente:

- **Ampliar la red de bidegorris.**

- Potenciar el transporte público, y si fuera posible, poner paradas de autobús cerca de nuestros centros.

Muchas gracias.

Alumnos de 2º de ESO

**Honekin gure aurtengo lana bukatzen dugu, eta zuei pasatzen dizuegu txanda.
Arratsaldeon eta eskerrik asko.**

Con esto finalizamos nuestro trabajo por este año, y ahora es vuestro turno. Buenas tardes y gracias.